

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"KOLORE GUZTIETAKO LANBIDEAK"

Jarduera-zk.: 6

B(t)
Bizkaia with the talent





Ikaskuntza-egoera

Testuingurua:

Biztanleriaren analisi estatistiko deskriptibo bat egiteko jarduera bat proposatuko da, ikasleen iritzi eta pertzepzio pertsonaletan oinarrituko dena. Jarduera bisualki egingo dute parte-hartzaileek, eta, ondoren, EINek (Estatistikako Institutu Nazionala) argitaratutako estatistika-azterlan batetik ateratako informazio errealekin alderatuko dira emaitzak. Testuingurua komunikabide batek –zehazki, gizarteari buruzko telebista-programa batek– egin behar duen zeregin bat izango da.

Abiapuntua:

Gizarteari buruzko gaiak jorratzen dituen telebista-programa bat gara, eta gizonek eta emakumeek zenbait lanbidetan duten ordezkari buruzko albiste bat argitaratu nahi dugu. Horretarako, grafikoki adierazi behar da gure gizartean lanbide jakin batzuetan lan egiten duten gizonen eta emakumeen proportzioa. Informazio estatistiko deskriptiboa irudikatzeke, ez gara datuetan edo ebidentzietan oinarrituko, pertzepzio pertsonaletan baizik.

Informazioa argitaratu aurretik, komunikabide profesionala garen aldetik, datu estatistiko errealekin alderatu beharko dugu gure azterlana.



Helburuak:

Saio honen helburua da agerian uztea estereotipoak gure bizitzako eguneroko alderdi askotan agertzen direla, batez ere lanbideekin lotuta. Horrez gain, estereotipo horiek nola erreproduzitzen diren erakutsi nahi da.

Zehazki, STEM lanbideekin lotutako estereotipoei buruz hausnartu nahi da, aldez aurretik pentsatutako ideia horiek lanbideen irudi desitxuratua ematen baitigute, eta, bereziki, genero-estereotipoei buruzko gogoeta egin nahi da.

Gogoeta horren helburua da ikasleek estereotipo horien aurrean kritiko izaten ikastea eta, lanbideei begiratzean, aldez aurreko eta funtsik gabeko balio-irritziak alde batera uztea.

1. Gogoeta egitea gure portaeran eta erabakietan eragina duten balio-judizio heredatuei buruz.
2. Begirada kritikoa garatzea gizartean errepikatzen diren goera estereotipatuen aurrean.

Funtsezko kompetentziak:

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII),
HERRITARREN GAITASUNA (HK)

Deskriptore operatiboak:

KPSII1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK1, HK2, HK3



Jardueraren deskribapena

Fake news edo albiste faltsuak (5 minutu)

Ikasgelako pantailan fake news bat proiektatuko dugu, eta ikasleei galdera hau egingo diegu: “Zer iritzi duzue informazio horri buruz?”.



[Fodey.com](#) -ekin sortutako albiste faltsua

Eztabaida labor batean beren ideiak eta iritziak adieraztera gonbidatuko ditugu ikasleak. Eztabaidarako erabil ditzakegun galderak:

- Zer iritzi dugu albisteko datuei buruz?
- Egiazkoak direla uste dugu? Zergatik bai edo zergatik ez
-

Jarraian, fake news kontzeptua aurkeztuko dugu: Fake news (albiste faltsu) bat sasikazetaritzako eduki bat da, albiste-atarien, prentsa idatziaren, irratia, telebistaren eta sare sozialen bidez zabaltzen dena publiko jakin bat desinformatzeko xedez. Amen-omen mota bat da (Wikipedia). Jarraian, albiste faltsuei buruzko eztabaidarekin jarrai dezakegu: zer eragin duten gizartean; zer-nolako garrantzia duen albiste baten iturria kontrastatzeak albiste horren egiazkotasuna baloratzeko; zer eragin duten albiste faltsuek komunikabideetan; zer den etika profesionala, eta abar.

Nola irudikatzen dugun STEAM profesional bat (10 minutu)



Jarduera hau, ahal dela, STEM PROFESIONAL batekin egingo da ikasgelan. Komeniko litzateke saio honetan parte hartuko duen profesionala tradizio maskulinoko STEM lanbide batean lan egiten duen emakume bat izatea.

Jarduera 3 urratsetan egingo da:

A) Pertsonaia bat diseinatzea:

Profesionala bere burua aurkeztu gabe sartuko da ikasgelara, eta ikasleek, inolako galderarik egin gabe, imajinatu beharko dute zertan lan egiten duen, zer ikasi duen, enpresan zer lanpostu duen, zenbat ordu lan egiten dituen, haren lana nolakoa den eta abar. Jarduera horretan klase osoak parte hartuko du, eta ozenki aipatuko dituzte pertsonaiaren ezaugarri posibleak.

Ariketa honen helburua STEM estereotipoak azaleratzea da, hau da, agerian jartzea ikasleek STEM lanbideei buruz dituzten aurrez pentsatutako ideiak. Ikasleei ezer bururatzen ez bazaie, programaren gidariak alderdi horiei buruzko galderak egiten lagundu dezake.

B) Galderak egitea:

Jarraian, profesionalaren benetako ezaugarriak aurkitzeko galderak egin ahal izango dituzte ikasleek: zertan lan egiten duen; zer lanpostu mota duen; zer ikasi zuen; haren lana nolakoa den, etab. STEM profesionalak, galderei erantzunez, bere lanbidearen irudi osoa emango du.

C) Zer irudi dugu STEM profesionalei buruz?

Programaren gidariak edo profesionalak STEM estereotipoei buruz hausnartzera bultzatuko ditu ikasleak. Horretarako, zenbait galdera egingo ditu. Esate baterako:

- Gure ustez, zer itxura dute STEM profesionalek?
- Itxura zehatz bat izaten dute?
- Itxura bera al dute informatikariek, ingeniariak, zientzialariek edo abokatuek?
- Zer pertzepzio dugu haien lanei buruz?
- Zergatik dugu STEM lanbideen irudi hori?

Ikasgelan profesionalik ez badago, jardueraren a) eta c) urratsak egingo dira (lehenik eta behin, ikasleek STEM profesional bat nola imajinatzen duten azalduko dute, eta, ondoren, programaren gidariak galderak egingo dizkie, STEM estereotipoei buruz hausnartu dezaten).



Aberaste-jarduera: Arbelean, bi zutabe hauek idatziko ditugu: "STEM lanbideak" eta "estereotipoak". Jarraian, lanbideen zerrenda bat idatziko dugu, eta taldeari proposatuko diogu lanbide bakoitza dagokion estereotipoarekin lotzeko. Dinamika horrek aukera emango digu eztabaidatzeko zenbateraino barneratuak ditugun STEM lanbideei buruzko estereotipoak, ikasgelan ikasle gehienek partekatzen duten pertzepziorik baden ala ez, eta abar.

LANBIDEEI BURUZKO ESTEREOTIPOAK: adibideak eman ditzakegu

- Medikuak "langileak, zintzoak eta altruistak" dira.
- Ingeniariak profesional "egituratuak, langileak eta barnerakoiak" dira.
- Abokatuak "ez-zintzotzat eta berekoitzat" jotzen dira, baina baita "langiletzat eta egituratutzat" ere.
- Marketineko eta harreman publikoetako profesionalak denetan "kanporakoiak eta desegituratuak" direla uste da.
- Zientzia zehatzei lotutako lanbideak (ingeniaritza eta kontularitza) pertsona "barnerakoiak" betetzen dituztela uste da.
- Psikologoak pertsona zintzo, kanporakoi, langile, altruista eta desegituratutzat jotzen dira.
- Altruismoa osasunaren arloko langileei lotutako atributua da.

(UADE Fundazioaren Gizarte Zientzien Institutuak estereotipoak buruz egindako ikerketa batetik ateratako baieztapenak)

PLANETAK ESPLORATZEKO GONBIDAPENA: STEM lanbide-arloetako planetak berrikusiko ditugu, aurrez pentsatutako beste ideiarik ba ote dugun aztertzeko.



IKASGELAKO STEM PROFESIONALAK bere esperientziatik lagundu dezake, dagokion eremu profesionala gehiago azpimarratuz, errealitatera hobeto egokitzen den irudia izan dezaten.

2

Zer lan egiten dute gizabanakoek gizartean (15 minutu)?

Programaren gidariak gogoeta hau egiteko proposatuko die ikasleei: zer lanbide-motatan dago pertsona gehien? Eta zein da pertsona horien generoa? Horretarako, zenbait postit banatuko dizkie ikasleei (50 postit laranja emakumeak irudikatzen, eta 50 postit berde gizonak irudikatzen), eta arbelean 10 zutabe marraztuko ditu (zutabe bakoitzak lanbide-arlo bat irudikatuko du).

3

Hauek izango dira arbelean identifikatutako 10 lanbide-arloak: medikuntza, sukaldaritza, erizaintza, administrazioa, eraikuntza, garraioa, ingeniariaritza, merkataritza, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.



Ikasleek eztabaidatu eta adostu beharko dute beren ustez zer lanbidetan dagoen pertsona gehien, eta, lanbide horietan gizon eta emakumeen kopura berbera ez dela uste badute, zein den gizonen eta emakumeen proportzioa. Ikasleek lanbideen zutabeetan jarri behar dituzte postit guztiak, eta azaldu beharko dute zergatik pentsatzen duten horrela.

Jarduera talde bakar batean (ikasgela osoa) edo 6 lagunekoko talde txikiagotan egin ahal izango da.

Preguntas de reflexión:

- Zein lanbidetan jarri dugu pertsona-proportzio handiena? Zergatik uste dugu jende-kopuru handiena lanbide horretan aritzen dela? Lanbide hori gizartearentzat oso garrantzitsua delako? Edo, beste zerbaitegatik?
- Zein lanbidetan dago gizonen proportzio handiagoa? Eta zeinetan dago emakumeen proportzio handiagoa?
- Lanbide horiei buruzko gogoeta egiten badugu, zergatik uste duzue gizon edo emakume gehiago daudela lanbide horietan?
- Zuen ustez, gizonei soilik edo emakumeei soilik dagozkien trebetasun bereziak behar dira lanbide jakin batzuetarako?
- Emakumeen presentzia handiagoa duten lanbideak identifikatzen baditugu, zer ezaugarri partekatzen dituzte, zuen ustez, lanbide horiek? Eta gizonen proportzio handiagoa duten lanbideetan?

Une horretan, baliteke lan produktiboaren eta la erreproduktiboaren arteko aldearen gaia ateratzea. Lan erreproduktiboak, historikoki, emakumeekin lotuta egon dira, eta produktiboak, berriz, gizonekin. Horrek genero bakoitzerako rol jakin batzuk sortzen eta indartzen lagundu du, eta gizartean lan produktiboa soilik baloratu eta ikusarazi da.

Definizio argigarriak:

- ☐ **Lan produktiboak** truke-balioa duten ondasunak edo zerbitzuak sortzen ditu, eta, beraz, diru-sarrerak dakartza.
- ☐ **Lan erreproduktiboa** pertsonen zaintza, ongizatea eta biziraupena bermatzen duten zereginen multzoa da. Lan horren barruan, bi maila daude:

- a) Erreproduzio biologikoa: haurdunaldia, erditzea eta edoskitzea.
- b) Gizarte-erreproduzioa: etxea zaintzea eta gizarte-talde jakin bateko kideen hazkuntza, hezkuntza, elikadura, arreta eta zaintzarekin eta talde horren antolaketa, araua, ohitura eta balioekin lotutako ohituren eta arauen erreproduzioa.

Helburua da bi lan-motei ematea balioa eta ikasleek ikustea edozeinek egin ditzakeela. Ez du generoaren araberako kontu bat izan behar, interes pertsonalen araberakoa baizik. Era berean, helarazi nahi dugu bi lan-motak direla garrantzitsuak eta beharrezkoak gizartearen garapenerako.



IKASGELAN STEM pertsona bat izanez gero, une egokia litzateke profesionalak komenta dezan, bere lan-esperientzian oinarrituta, zenbat gizon eta zenbat emakume dauden bere lanpostuan. Egokia litzateke, halaber, bere ustez emakumeek zein gizonek egokiro betetzen dituzten bere enpresako zeregin espezifikoetan jartzea arreta. Bere ustez gizonentzat eta emakumeentzat interesgarriak izan daitezkeen eta ikasleek ezagutzen ez dituzten zeregin-motak aipa litzake. Beraren lanbidea ikasleei hurbiltzea da kontua, ikuspegi errealagoa izan dezaten.

3

Errealitatea aztertzea (10 minutu)

Azterlaneko grafikoetako zirkulu bakoitzak okupazio, ofizio edo lanbide bat adierazten du, bertan lan egiten duten emakumeen ehunekoaren arabera. Datuak Espainiakoak dira.



Baliabidea

Estatistikako Institutu Nazionalaren Azterketa.

Azterlan horrek Espainiako lanbide maskulinizatuenak eta feminizatuenak zein diren erakusten du.

Ikasleei denbora-tarte bat emango diegu datuak ongi ikusteko, lanbideak aztertzeko eta grafikoko datuen irudikapena ulertzeko. Horretarako, zenbait minutu emango dizkiegu eta, ondoren, galdera batzuk egingo ditugu:

- Zuen banaketa horrek ba al du antzekotasunik datu errealek erakusten dutenarekin?
- Harritu al zaituztete lanbideren bateko emaitzek?

4

4

- Esploratu nahi duzue harritu zaituzten edo ezagutzen ez duzuen lanbideren bat?

Hausnarketa hori lagungarria izan daiteke zenbait lanbideren berri emateko ikasleei; are gehiago, lanbideok non kokatuko liratekeen hausnartzera gonbida ditzakegu.



KASGELAN STEM pertsona bat izanez gero, beraren lanbidea non kokatzen den azaldu lezake. Bere ustez lanbide hori ikasleentzat ezaguna edo ezezaguna den ere komenta lezake. Agian, beraren lanbidetik hurbil dagoen eta berak ondo ezagutzen duen beste lanbide batean sakontzen lagundu dezake.

Lanbideek ez dute generorik (5 minutu) (aukerakoa)

Jarraian, ikasleek honi buruz hausnartzea nahi dugu: zergatik gertatzen da gizonen eta emakumeen arteko banaketa hori lanbideetan? Horretarako, bideo hauetakoren bat ikusteko proposatuko zaie.



Bideoa: [“Always like a girl”](#)

Bideoa: [“Inspirando al futuro sin estereotipos”](#)

Hausnarketarako galderak, bideoetan oinarrituta:

- Nola sentitzen gara bideoak ikusi ondoren?
- Ez da uste duguna bezalakoa?
- Antzeko zer esaldi edo ideia estereotipatu ezagutzen edo entzun ditugu? Eragiten al digute ideia horiek?
- Zer egin behar dugu iruzkin horien aurrean edo egoera estereotipatuak ikusten ditugunean?

Programaren gidariak hausnarketa-txanda bat irekiko du galdera hauen bidez:

- Badugu askatasunik gure lanbidea aukeratzeko?
- Zerk mugatzen du gure aukeraketa?
- Zer irizpide jotzen ditugu garrantzitsutzat aukeraketa egiteko?

Con estas preguntas surgirán algunas variables como la influencia de la familia en la elección, la importancia del salario percibido, el reconocimiento social, las percepciones de la calidad de vida, etc.

5



Aberaste-jarduera: Jarduera hori osatzeko, **genero-estereotipoen aurkako dekalogo bat egin daiteke (30 minutu).**

Programaren gidariak ikasleei proposatuko die beren inguruneko genero-estereotipoak desagerrarazteko jarduera-dekalogo bat diseina dezatela.

Jarduera horren helburua da ikasleek beren ingurunean dauden jarrera eta jarduera estereotipatuak baztertzea. Horretarako, eskolan/ikastetxean, familian edo lanbide-munduan gertatzen diren egoeretan oinarritu daitezke.

Hona hemen adibide batzuk:

- Ez auresuposiziorik egin, ez orokortu, ez esajeratu, eta ez erori estereotipoetan.
- Dakizunari lotu, ez jarri etiketarik jendeari zure auresuposizioetan oinarrituta.
- Errespetuz galdetu, besteen erantzuna jakintzat eman gabe.
- Barnean hartu guztiak.

AZKEN GOGOETA: Garrantzitsua da ikasleek hitzez adieraztea zerk baldintzatzen dituen beren aukeraketak. Baina parte-hartzaile guztion artean ondorio hau atera beharko genuke: estereotipoek ez gaituztela baldintzatu behar, lanbideek ez dutelako generorik, eta STEM arloei buruz aurrez pentsatutako ideiak, askotan, okerrak direlako. Lanbide guztiek funtzio garrantzitsua betetzen dute gizartearen garapenerako.

PLANETAK ESPLORATZEKO GONBIDAPENA: (10 min)

Ikasleei lanbideen fitxak berrikustea proposatuko zaie, lanbide bat aukeratzeko garrantzitsutzat jo dituzten irizpideak oinarri hartuta; hala, ikusiko dute haietako zein datorren bat irizpide horiekin. Lan produktibo eta erreproduktiboen kontzeptuari ere hel geniezaioke, eta STEM lanbideetan bi lan mota horien adibideak identifikatzen saia gaitezke.



Baliabideak:

- Boligrafoak, arkatzak eta errotuladoreak.
- Post-itak
- Ordenagailua, Internetarako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak bideo-zati bat erreproduzitzeko.

Gauzatzeko gomendioak



Jarduera hau DBHko 3. mailako matematika irakasgaiaren barruan ere txerta daiteke; izan ere, jarduera horren bidez, alderdi hauek lantzen dira: datuak aztertzea eta interpretatzea, aieruak egitea, erabakiak informazio estatistikoan oinarrituta hartzea eta, azkenik, fenomenoak datuen analisisan oinarrituta ulertzea eta komunikatzea.



Kronograma argi bat ezartzea jardueraren fase bakoitzerako epemugekin, ikasleek prestatzeko eta idazteko denbora nahikoa dutela ziurtatuz.



Sortu ingurune errespetuzkoa eta enpatikoa. Ziurtatu ikasle guztiek sentitzen dutela interakzioetan eta eztabaidetan gainerakoek kasu egiten dietela eta baloratu egiten dituztela



Jarduera amaitzean lanbideetako planetetan nabigatzeko Interneterako konexioa ziurtatzea.



Jarduera hori DBHko 3. mailako matematikaren arloan garatzen bada, STEM gaitasunaren deskriptore operatibo hauek ere garatuko dira: STEM1, STEM2 eta STEM6.

Gutxi gorabeherako denbora

50 minutu

Ebaluatzeko errubrika

| Irizpidea k | Bikain 5 | Ongi 4 | Onargarri 3 | Nahikoa 2 | Hasiera 1 |
|---|--|--|---|---|---|
| Auto- ezagutza | Bere interesak, trebetasunak eta nahiak sakon ulertzen dituela erakusten du. | Ea ondo ulertzen dituen bere interesak eta trebetasunak . | Bere interesei eta trebetasunei buruzko oinarritzko ulermena duela erakusten du. | Bere interesak eta trebetasunak ulertzen hasi da. | Bere interesak eta trebetasunak identifikatzeko lehen urratsak ematen ari da. |
| Berdintasun- ean oinarrituta- ko hezkuntza | Errespetua eta aukera-berdintasuna sustatzen ditu, eta errespetuz eta genero-diskriminaziorik gabe egiten ditu interakzioak. | Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten rola eta zereginak errespetatzen ditu, eta berdintasunean oinarritutako jarrera erakusten du besteekiko harremanetan. | Bere ingurunean dauden genero-ester eotipoak identifikatzen eta zalantzan jartzen ditu. | Genero-ester eotipoak identifikatzen hasi da, baina oraindik ez du jarrera kritikorik agertu. | Axolagabekeria erakusten du genero-ester eotipoen aurrean. |

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"KOLORE GUZTIETAKO LANBIDEAK"

Jarduera-zk.: 6

B(t)
Bizkaia with the talent

